

Banaketa eta komunikazio kanalak

Flexiphonek, denda fisikoan eta internet bidez eros daiteke. Flexiphonek bere web orria izango du, non erosketak egin, informazioa eskuratu eta enpresarekin kontaktuan jartzeko aukera izango duten bezeroek. Flexiphonen web orriaz gain, beste interneteko orrietan salduko da. Amazon oso orri famatua da eta jendeak dioenez, ohikoa ez den produktua bilatu behar dutenean, amazon edo aliexpress dendatan bilatu egiten dute. Amazon oso segurua eta eroso da eta hori jendearentzako oso arlo garrantzitsua da.



Supermerkatuetan ere aurki ditzakegu, supermerkatu handietan. Teknologia berriaren sailan sailkatuko genuke. Jendeak hilabeteko erosketak edo gauza berriak ikustera joaten denean, produktua ikusiz gero zertarako balio duen irrikitan jartzeko aukera dago eta produktuari gerturatu egingo dira informazioa bilatzeko. Bere prezio baxuari esker erakargarriago egiten da. Gaur egungo gazteentzat, gabonetako edo urtebetetzerako izugarritzako oparia izango litzateke. Gainera ez du konplikaziorik, produktuaren muntaia egina egongo da bere kaxaren barruan, ez da montatu beharrik eta energia gutxi behar du.

Flexiphone ere aurki dezakegu mugikor eta teknologia berrientzako produktu osagarriak saltzen diren dendetan, beste produktuekin batera eta orokorrean txinatarretan eta indiarretan ere saltzeko aukera izango dute. Gaur egun mugikorrentzako mila denda ikus ditzakegu kalean eta gainera oso erabilgarriak izaten dira haietan dauden produktuak. Mugikorraren pantaila estaltzen



duen segurtasun pantaila denda haietan aurki ditzakegun bezala flexiphone ere aurki ditzakegu.

Flexiphonen enpresarekin kontaktuan jartzeko web orrian korreoa eta telefono zenbakia eskugarri izango du nahi dutenak. Web orrian informazio orokorra aurki ditzakegu eta galdera pertsonalenzako atal bat aurki daiteke, hala nola, dituzten kezka guztiak konpontzeko konpromisuarekin.